


«Top44a inoiz baino gertuago ikusten dut»

Txikitán, Aritz Aranburuk Zarautzen jokatzeko den Munduko Surf Txapelketan parte hartzen zuten surflariei inbidia apur batekin begiratzeko zien. Aurten ere egingo da txapelketa bere jaioterrian eta oraingoan bera jardungo da surf egiten. Berari begiratuko diote. Lasaitasuna eta umiltasuna nabari zaizkio, eta badirudi dena kontrolpean duela, elkarrizketak egitea bere lanaren parte izango balitz bezala. Baina, bere txikitako ametsik politenean ere ez zen azaltzen surfa egitetik bizi ahal izatea, eta zorteduna dela sarri errepikatzen du.

MAIDER BELDARRAIN

Argazkiak: Dani Blanco



Aritz Aranburu

Imajinatzen zaitut zazpi urterekin, ikastolatik atera eta olatuei begira denbora pasatzen. Zuk nola gogoratzen duzu garai hura?

Zarauztarra izanik, txikitatik hondartzan ordu asko pasa ditut eta gogoratzen dut 3-4 urte nituenean paipoarekin nola ibiltzen nintzen. Gainera, orduan Zarautzen Munduko Txapelketa egiten zen eta surflari horiek guztiak ikusten nituenean inbidia sentitzen nuen. Zazpi urterekin ikastolan liburuxka bat eman ziguten udako kirolekin eta aukeretako bat surfa zen. Gurasoak berehala konbentzitu nituen eta jaunartzea egiterakoan oparitu zida-

ten lehenengo surf ohola, hortxe hasi zen nire ibilbidea.

Familiaren babesa garrantzitsua izango zen.

Hasieratik asko babestu ninduten eta hori bizi-tza osoan eskertuko diet. Euren ez dute mundu honekin zerikusirik, erabat ezezaguna eta berria izan da dena eurentzat. Hala ere, txikitatik lagundu didate eta txapelketa eta txoko guztietara eraman naute.

Hemezortzi urte arte ikasten jarraitzea erabaki zenuen. Nola lortzen da txapel-

“Gauza berriak egiten hasten zaren heinean beti daude mugak eta muga horiekiko errespetua izatea ezinbestekoa da”

ketak, bidaiak eta ikasketak uztartzea?

DBH amaitu nuenean izan nituen zalantzarik handienak, orduan hasi bainintzen apur bat profesionalizatzen. Hala ere, surfean beste edozein kirolean bezala lesio batek asko eragin dezake. Horregatik, egunen batean ikasten jarraitu nahi badut batxilergoa eta selektibitatea eginda edukitzeak atak irekita uzten dizkit. Gainera, txapelketetan parte hartzea, bidaiatzea eta ikasketak tartekatzea ez zitzaidan oso zaila egin.

Gaztetatik asko ibili zara etxetik kanpo.

Bai egia da, baina ni oso baikorra naiz eta gauza guztien alde positiboarekin bakarrik geratzen naiz, azken batean, orain daramadan bizitza betidanik amestu izan baitut. Txikitik sekula ez nuen pentsatuko surflaria izango nintzenik. Urteko hiru laurdenak etxetik kanpo pasatzen ditut eta egia da, urtetik urtera etxekoan falta gehiago sumatzen dudala, baina ez naiz nahigabetzen. Adibidez, etxetik milaka kilometrorra nengoen batean erretako haragia jaten ari nintzen eta bat-batean lagunekin sagardotegira joateko gogoia etorri zitzaidan. Momentuak izaten dira. Hala ere, ezagutzen ditut etxera joateko irrikitan egoten diren surflariak; nik ordea, badaikit zorte handia dudala eta ezin naiz kexatu.

Zer egiten duzu etxera etortzean?

Ez da asko aldatzen kanpoan edota etxean nagoenean daramadan bizimodua, bietan egiten baitut surfa. Inguruko jendea da gehien aldatzen dena. Bidaiatzen hasi nintzenean, etxetik kanpo lo egiteak harritzen ninduen, orain etxean lo egitea izaten da arraroa. Niretzat berezia da, jaiki-



Aritz Aranburuk WQS-ren Brasilgo bost izarreko txapelketan garaipena lortu zuen.

lako, surfean malgutasuna ezinbestekoa izanik. Olatu handietarako berriz, aipaturiko guztiaz gain fondoa bereziki lantzen dut.

Surf egiten noizbait sentitu al duzu beldurra?

Bai, askotan, eta norbaitek ezetz esango balu ez nioke sinetsiko. Gauza berriak egiten hasten zaren heinean beti daude mugak eta muga horiekiko errespetua izatea ezinbestekoa da. Sarritan ez da izaten beldurra sentitzen dudana, bai ordea errespetua. Gogoratzen dut Hawain lehenengo aldiz egon nintzenean sekula ikusi ez nituen olatuak zeudela; hamar metro ingurukoak, eta hasieran beldurra eta errespetua sentitu nituen, biak aldi berean.

Surf egitetik bizi al daiteke?

Ni surf egitetik bizi naiz, nahiz eta hori nire ametsik politenean ere ez zen azaltzen. Egia da



BARAKALDO

Apirilaren 27tik Maiatzaren 6ra arte, Los Hermanosen

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

Bizi irakurriz!


Olatuaren aparrek

Txapelketak Vs. Freesurfa

"Niri oraintxe freesurfa egiteagatik diru bikoitza irabaziko nukeela esango balidate ere ezezkoa erantzungo nuke, lehia gustuko dut eta txapelketak faltan botako nituzke. Hala ere, badakit galtzen eta munduko zirkuituan sartzean hasieran galtzea da normalena, eta gero esperientziarekin hobetuz joatea. Iaz Kalifornian, Japonian eta Frantzia lehenengo mangan kalera joan nintzen eta uste dut une horietarako prest egotea ezinbestekoa dela, bestela zirkuitua ez baituzu pozik egiten".

Hawai

"Hawain indar askoko olatu handiak daude ia egunero eta nire surf estiloarentzat oso egokiak dira olatu horiek. Lokalismo handia dago eta alde batetik ulertzen dut; azken batean, Oaju irla txikia da eta bat-batean munduko 500 surflari onenak olatu hoberenak dauden garaien elkarteak batzuk haserretzen ditu. Hala ere, ez dut defenditzen talde gutxi batzuen biolentzia. Gai-



nontzean, oso jende jatorra eta ona da hawaiarra".

Lokalismoa

"Toki guztietan dago lokalismo apur bat, baina munduan zehar bidaia-tzen ibili eta gero konturatu naiz gu apur bat tontoak garela. Izan ere, munduko edozein txokotan bertakoez ez digute uzten lasai surf egiten; guk ordea, hemen denei uzten diegu. Horregatik eta beste arrazoi batzuegatik, euskaldunok eta Euskal Herriak surf munduan oso fama ona dugu atzerriko edozein lekutan".

Aitor Francesena Gallo

"Gallo niretzat entrenatzaile bat baino askoz ere gehiago da. Jada

hamar urte daramatzagu elkarrekin lan egiten eta esan dezaket anaiak bezala garela. Helburu asko bete ditugu elkarrekin eta orain handiena lortzeko gogotsu gabilta. Bera ez banu aldamenean izango, ziurrenik dena oso ezberdina izango zen, azken batean surfa ez baita uretan ikusten dena soilik".

horretarako maila jakin bat eduki behar dela eta surflari bakoitzak gure sponsorrekin dugun kontratua ere oso desberdina dela. Uste dut mundu mailan nahiko ondo ibiltzen bazara, surf egiteki bizi zaitezkeela. Duela hamar urte Euskal Herrian bakarren bat bizi zen surf egiteki eta orain gutxienez gehiago gara. Harrobi ona dator eta agian hemendik hamar urtera askoz gehiago biziko gara surfetik, erraza ez den arren.

Esan liteke surfa egun diru mordoa mugitzen duen negozioa dela. Zuk barrutik nola ikusten duzu?

Surf markak beste enpresa ezagun batzuk erosten ari diren enpresa erraldoiak dira. Dударik gabe, diru asko mugitzen duten enpresak dira.

Surfaren industria Euskal Herrian

"Goraka doa eta hori asko nabari da. Orain Euskal Herriko surflari batek txapelketa bat edo beste irabazten badu oihartzuna izaten du gizaratean, hedabideen indarra dela-eta. Duela gutxi arte, Euskal Herrian surf egiten Eneko eta Kepa Acero anaiak bakarrik ibili dira maila profesionalean, orain ordea, profesional gabiltzan taldea apur bat handiagoa da eta zaletasuna ere handitzen doa. European surfa nahiko berandu garatu da Amerika edota Australiarekin alderatuta, baina une honetan bizitzen ari garen eboluzioa handia da eta horri begiratu behar zaio".

WQS (World Qualifying Series) zirkuituan Brasilen bost izarreko txapelketa irabazi duzu. Pare bat hilabete pasa ondoren nola gogoratzen duzu?

Hasieran kostatu egin zitzaidan lortu nuena asimilatzea, azken batean konturatu bainintzen aurretik egindako ahalegin guztiak izan zuela eragina. Gainera, urteari horrelako hasiera eman izanak lanean jarraitzera animatu nau.

WCT (World Championship Tour) zirkuituan sartzea da zure ametsa. Gertu ikusten al duzu?

Gertu ikusten dut, baina oraindik txapelketa asko geratzen dira. Nire helburua WCT-n sartzea da, baina badakit ni bezalaxe munduko beste 500 hoberenek ere hori dutela buruan, lekua 44rentzat bakarrik egonik. Horregatik Brasilen irabaztea ikaragarria izan da, nire ametsa sekula baino gertuago ikusten baitut. Hala ere, baikorra naiz eta badakit lan asko eginez gero zerbait lortu dezakedala. Une honetan oso gustura nago eta horrek egongortasuna ematen dit.

Non duzu helmuga?

Helburu desberdinak ditut eta surfaz gain bestelako ametsak ere baditut, nahiz eta momentu honetan surfari lehentasuna ematen diodan. Hemendik hamar urtera surf egiten ikusten dut nire burua. Hogei urtera? Auskalo. ■